

Itzal eta Ametsen abenturak

Bazen behin Euskal-herriko herrixka batean neska eta mutil bat bizi ziren. Neska Itzal deitzen zen eta mutila Amets. Itzali ehiza gustatzen zitzaion, ausarta, indartsua, azkarra zen...

Baina Amets ez zen ehizan trebea, apur bat beldurtia eta jakintsua zen.

Gurasoek ez zuten onartzen umeei nahi zuten gauzak egitea. Itzal eta Amets gurasoekin haserretu ziren. Azkenean gurasoak umeei nahi zutena egiten utzi zioten. Bakoitza berak nahi zuena egiten hasi zen (Itzal ehizatzen eta Amets liburuak irakurtzen eta idazten hasi ziren).



Hortik urte batera herrixkara munstro bat joan zen. Munstroak Itzal eta Ametsen gurasoak beraren kobazulora eramane zituen.

Itzal eta Ametsek gurasoen bila joan nahi zuten, baina herritarrek ez zioten usten oso arriskutsua zelako. Hurrengo eguna triste igaro zuten gurasoen bila joan nahi zutelako, baina beldur ziren. Hortik bi egunetara ausartu ziren, eta gurasoen bila joatea erabaki zuten.

Basora sartu ziren apur bat beldurtuta aurrera jarraitu zuten. Bidegurutze batera iritsi eta txantxangorri batekin aurkitu ziren. Galdetu zion ametsek:

- Txantxangorritxo badakizu nondik joan den munstroa?
- Ezkerreko bidetik joan da -erantzun zuen Txantxangorriak.

Aurrera jarraitu zuten, erreka batera iritsi ziren. Nekatuta zeudenez hantxe geratu ziren lotan. Hurrengo goizean arrantzatzea erabaki zuten. Sua egiteko harrien bila joan ziren. Harrien bila zoaztela erlauntza batekin aurkitu ziren, ezitia nahi zuten. Hortaz ezitia hartu eta korrika hasi ziren erleak haien atzean zeudelako.

Azkenean uxatzea lortu zuten, "galdu" egin ziren, eta Ametsek esan zion Itzali:

- Beldur naiz galdu egin gara, ezingo ditugu gure gurasoak aurkitu eta ezingo gara etxera itzuli!!!
- Lasaitu bizirik aterako gara. Gainera hantxe azeri bat dago goazen galdetzerara!!! -Ukatu zuen Itzal-ek

Azeriarengana abiatu ziren. Galdetu zion Itzal-ek azeriari:

- Badakizu nondik joaten den munstroaren kobazulora?
- Eskumako bidetik joan da. Kar,kar,kar,kar. -Erantzun zuen azeriak


Umeek azeriari kasu egin zioten. Hortaz eskumako bidetik joan ziren. Hortik gutxira katagorri batekin aurkitu ziren. Galdetu zioten katagorriari:



- Katagorri nondik dago munstroaren kobazuloa?
- Zuek etorri zareten bidetik -Erantzun zuen katagorriak
- Baina azeriak hemendik dela esan digu!!! -Esan zuen Ametsek
- Azeria beti berdin, beti gezurrak esaten -Esan zuen katagorriak
- Badago beste biderik azkarrago heltzeko? -Galdetu zuen Itzal-ek
- Bai, bidezidor horretatik joanda lehenago iritsiko zarete -Erantzun zuen katagorriak.

Bidezidorretik jarraitu zuten. Ur-jauzi batera iritsi eta han igaro zuten gaua. Hurrengo egunean ezti jan zuten, ezti guztia amitu zuten. Ur-jauziaren atzean kobazulo bat zegoen. Kobazulora sartzea erabaki zuten. Kobazulora sartu eta bide gurutze batean zeuden. Saguzar bat ikusi eta galdetzea erabaki zuten. Galdetu zioten saguzarrari:

- Saguzar ba al dakizu zer bidetatik joan den munstroa?
- Erdiko bidetik joan da -Erantzun zuen saguzarrak



Aurrera jarraitu zuten erdiko bidetik. Munstroa zegoen tokira iritsi ziren. Harri baten atzean ezkutatu ziren. Munstroa gurasoekin jolasten ari zela eta gurasoak ondo pasatzen ari zirela konturatu ziren.

Munstroa ez zenez gaiztoa munstroari herrixkan txoko bat egin zioten munstroarekin jolasteko. Pozik bizi izan ziren betirako.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila herrikkako plazan!!!

AMAIERA